Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko irailean

• ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2024ko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintzen kopurua 1.718 izan da, abuztuan baino 852 gehiago, eta 2023ko irailean baino 145 gehiago.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketa Administratiboko Unitatearen (KAU) lurralde historikoari dagokionez, 2024ko irailean, 203 eskaintza erregistratu dira Araban, 818 Bizkaian, eta 697 Gipuzkoan. Araban eskaintzen %11,8 erregistratu dira, Bizkaian %47,6 eta Gipuzkoan %40,6.



Araban hilabete honetan eskaintzak %6,78 igo dira (2 eskaintza gehiago); Gipuzkoan %74,7 igo dira (298 eskaintza gehiago); eta Bizkaian igoera %136,4koa izan da (472 eskaintza gehiago).

Iazko hilabete berarekin alderatuta, eskaintzak Bizkaian jaitsi egin dira %2,5 hain zuzen ere (-21 eskaintza). Eskaintza gehien igo diren lurrealdea, bai balio absolutu zein erlatiboetan, Gipuzkoa izan da, %30,8 igo baitira (164 eskaintza gehiago); Araban, berriz, 2 eskaintza gehiago erregistratu dira (+%1).

• ESKAINTZAREN OKUPAZIOA

Okupazio-profilei dagokienez, EAEn teknikari zientifikoen profila izan da eskaintza gehien erregistratu duena, 381 eskaintzarekin, guztien %22,2a. Ondoren, laguntza teknikarien profila dago, 341 eskaintzarekin eta %19,9ko pisuarekin. Industriako, zerbitzuetako eta kualifikatu gabeko profilek ere ehuneko esanguratsuak dituzte, %14,4, %14,3 eta %12,1eko pisuekin, hurrenez hurren. Eskaintza gutxien dituzten profilak lehen sektorekoak eta zuzendaritzakoak dira, 9 eta 19 eskaintzarekin, hurrenez hurren.

Joan den hilabetearen aldean, profileko guztietako eskaintzek egin dute gora. Laguntza teknikarien profilekoak igo dira gehien balio absolutuetan (+198 eskaintza, %138,5eko igoera); balio erlatiboetan, berriz, industriako eskaintzak dira gehien hazi direnak, %172,5, hain zuzen ere (+157 eskaintza).

Urte arteko saldora begira, eskaintza guztiek egin dute gora, zientzia teknikarienak izan ezik, horiek 49 gutxiago izan baitira (-%11,4). Zerbitzuetako eskaintzak dira gehien hazi direnak balio absolutuetan, 55 gehiago, eta %28,8ko igoera izan baitute; balio erlatiboetan zuzendaritzako profiletan izan da hazkunde handiena, %137,5ekoa (8 eskaintzatik 19ra igaro dira).

• KONTRATU MOTA

Erregistratutako eskaintzen %40,5 mugagabeak dira, %58,9 aldi baterakoak eta gainerako %1,7 merkataritzakoak. Kontratu mugagabeen eskaintzen ehunekoa altua da serie historikoarekin alderatuta, nahiz eta hil honetan, abuztuarekin alderatuta 7 puntu jaitsi den, baina 2023ko irailekin alderatuta ia 13 puntu igo da. Datu horiek lan-erreformaren ondoren eskaintza mugagabeen presentzia handiagoa izateko joera berresten dute.



Kontratu mugagabeen eskaintzak 695 izan dira, aurreko hilabetean baino 280 gehiago (%67,5eko igoera). Aldi baterako eskaintzak 576tan igo dira; guztira 1.012 izan dira, balio erlatiboetan %132,1eko igoera da. Azkenik, merkataritza izaerako 10 eskaintza egon dira irailean, abuztuan baino 5 gutxiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 256tan igo dira (%58,3ko igoera); aldi baterako eskaintzak, berriz, 114tan jaitsi dira, %10,1 gutxiago. Azkenik, merkataritza-eskaintzak 2tan igo dira urteko erreferentzian, 8tik 10era igaro baitira..

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA

2024ko irailean erregistratutako eskaintzen %77,5ek 0-6 hilabeteko esperientzia eskatzen dute; guztira 1.332 eskaintza. Erregistratutako eskaintzen %11,4k, guztira 196 eskaintzak, 6-12 hilabeteko esperientzia behar dute. Ehuneko txikiagoak dituzte esperientzia handiagoak behar dituzten eskaintzek, hala nola 3-5 urte bitarteko esperientzia, %1,8ko pisuarekin (31 eskaintza) eta 5 urte baino gehiago behar dutenek; 7 eskaintza eta %0,4ko pisuarekin.



Hil arteko bilakaerari dagokionez, esperientzia-tarte guztietan igo dira eskaintzak. 0-6 hilabeteko esperientzia behar duten eskaintzak izan dira gehien igo direnak balio absolutu zein erlatiboetan: 720 eskaintza gehiago eta %117,7ko hazkundea.

Urte arteko bilakaerari dagokionez, esperientzia-tarte guztietan igo dira eskaintzak. Guztizko balioetan 0-6 hilabete bitarteko tartea da gehien hazi dena, 82 eskaintza gehiagorekin (%6,6); balio erlatiboetan, berriz, 3-5 urte bitarteko esperientzia behar duten eskaintzen igoera nabarmentzen da, %55ekoa izan baita (+11 eskaintza).

Irailean erregistratutako lan-eskaintzek batez beste 8 hilabeteko esperientzia eskatzen zuten.

Lan-eskaintzen erregistroa 2024ko irailean

• LANALDI MOTA

Aipatzekoa da lan-eskaintza guztiek ez dutela zehazten lanaldia erregistratzerakoan, eskaintzen %14,8k bakarrik zehazten baitute (1.718 eskaintzetatik 256k). 256 eskaintza horietatik 226 lanaldi osokoak izan dira, eta gainerako 30ak lanaldi partzialekoak.



Bilakaerari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 96tan igo dira abuztuaren aldean (%7,39ko igoera). Lanaldi partzialeko eskaintzak 14tan igo dira, %8,75eko igoerarekin.

Urte arteko bilakaeran, lanaldi osoko eskaintzak 90 gutxiago izan dira (-%28,5); eta lanaldi partzialeko eskaintzak 3 gutxiago izan dira (-%9,1).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 117 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 105 gehiago eta aurreko urtean baino 105 gehiago ere.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle hau ere ez da beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen %80,9k ez dute zehaztu gutxieneko prestakuntza-maila: 1.718 eskaintzetatik 329k soilik zehaztu dute maila akademiko minimoa.



329 eskaintza horietatik 101ek unibertsitate-ikasketak eskatzen dituzte; ikasketa-maila hori da gehien eskatu dena. Ondoren, Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak datoz, irailean 130 eskaintza erregistratu baitira. Atzetik derrigorrezko ikasketen eta batxilergoko profiletakoak datoz, 60 eta 38 eskaintzekin, hurrenez hurren.

Hil arteko bilakaeran, ikasketa-profiletako eskaintzak igo egin dira ikasketa profil guztietan. Balio absolutuetan gehien igo direnak Lanbide Heziketako ikasketak eskatzen dituztenak dira, 91 eskaintza gehiagorekin eta %23,33ko igoerarekin; balio erlatiboetan, berriz, batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak dira gehien hazi direnak, %280 (+28 eskaintza).

2023ko irailekin alderatuta, Lanbide Heziketako ikasketak (-23 eskaintza, %1,5eko jaitsiera) eta unibertsitate-ikasketak (-107 eskaintza, %5,14ko jaitsiera) eskatzen dituzten eskaintzak jaitsi dira. Aitzitik, batxilergoko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak igo dira gehien, bai maila absolutuan, bai maila erlatiboan (+20 eskaintza, %11,11ko igoera).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako eskaintzen bolumenagatik gehien nabarmentzen den jarduera manufaktura-industria da, 221 eskaintzarekin, hileko eskaintza guztien %12,9a. Ondoren, administrazio-jarduerak datoz, 207 eskaintzarekin (%12,1).

Aurreko hilabetearekin alderatuta, ia jarduera guztietan igo dira eskaintzak (ez dago jaitsierarik). Nabarmentzekoa da administrazio publikoko eskaintzen balio absolutuen eta erlatiboen igoera (+161 eskaintza, +%473,5). Ondoren, administrazio-jardueren hazkundea dago, 101 eskaintza gehiagorekin eta % 95,3ko hazkundearekin

Urte arteko saldoan, administrazio jardueretako (+90 eskaintza, %76,9) eta jarduera profesional eta zientifikoetako (+63, %6,3) eskaintzen igoera nabarmendu behar da. Bestalde, jaitsierarik handiena administrazio publikoan gertatu da, 63 eskaintza gutxiago eta %32,7ko murrizketarekin.